

# PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

14-4-4 10.ALEA

## Teodosiori agur

6. ORR. ►►

Torturaren egia:  
itzaletik argira

2. ORR. ►►

2014ko  
udal aurrekontuak

4. ORR. ►►

Zabor tasak  
aztergai

8. ORR. ►►



“Barne Kanta” eskultura inaguratu zuten torturaz hildako pertsonen senideek

# Torturaren arrasto sakon eta ezkutua

“Torturaren egia, itzaletik argira” jardunaldiak burutu ziren otsailaren 10etik 16ra

“Tortura beti kaxoian egon da, trantsizioan kaxoian utzi zuten eta oraindik erabat ezkutatuta dago”. Pako Etxeberriak Zizurkilen esandako esaldi horrek laburbildu dezake ekimen hau egitearen beharra. “Aitortza ekitaldi bat izatea nahi genuen, aitortza bat Euskal Herrian inoiz torturatuak izan diren guztiei. Eta bereziki eurak entzun nahi genituen. Udalak edo alderdiek ez genuen parte hartu nahi, eta horrela izan da”, azaldu digu Eva Usandizaga giza eskubide zinegotziak. 3 solasaldi egin ziren astean

zehar. “Hirurak osagarriak izan zitezten saiatu ginen”, nabarmendu du Usandizagak. Lehenengoan Joxe Arregi kasua gogoratu zen, Maribi Arregi arrebaz gain, Pako Etxeberria auzi mediku ezaguna eta Iñaki Egaña historialariarekin. Torturatzailleak zigorgabe geratu ziren epaiketa gogoratu zuen Arregi arrebak. Aurrera begira, desio bakarra du, “esaten duten egunean baietz, Joxe polizien torturak hil zutela, Joxe biktima bat gehiago dela... Orduan lasaitua hartuko dut, nik horrekin nahikoa dut. Urte asko dira egia noiz

onartuko den zain gaudela”. Alde horretatik, etorkizunera begira, baikor hitz egin zuen Pako Etxeberriak. “Erakundeek egia ofizialik egin nahi ez badute, bestelako lanak egin beharko ditugu. Euskal Herrian sekulako dimentsioa du torturaren gaiak. Eta aterako da azalera”. Hainbat tortura kasuren argazkiak ekarri zituen Etxeberriak, berak auzi mediku gisa atereak. Hurrengo egunean torturaren inguruan Ricar Salom katalanak egindako dokumentala eskaini zen. Hirugarren solasaldia berriz, Harkaitz Cano idaz-



*Pili Zabala: «Liburuan askotan errepikatzen da, "pentsatu eta esaten ez diren gauzak" esaldia. Gu horrela heziak izan ginen. Gure sentimentuak ezkututzen»*



*Pako Etxeberria: «Erraz hitz egiten dugu Txilez, Argentinaz... eta hemen gertatuakoa? Nik ezin dut Madrilera joan eta nire lankideen aurrean esan, orain gureaz hitz egin dezagun. Horrek eskandalua sortzen du»*

learen eta Pili Zabala Joxi Zabalen arreba artekoa izan zen. Izan ere, Lasa-Zabala kasuan oinarrituta idatzi du Twisten nobela Harkaitz Canok. Pili Zabalen testigantzak bertaratutako asko hunkitu zituen. "Nobela irakurtzen alderaketak egiten nituen. Lehen kapitulua oso gogorra da baina bizitza askoz ere gogorragoa izan da. Desagertuta egon ziren 11 urte 5 hilabete horiek ezin duzue irudikatu zer izan ziren". Zabalar lagundu egin zion nobela irakurtzeak. Arteak zauriak sendatzen lagundu dezakeela ziur da Cano. "Katarsia hori da. Emozioaren bidez, trauma hori berriro sentitzea beste modu batera, aurre eginez." Gertaerak ikusgarri egitearen garrantzia azpimarratu zuen. "Ikusgarri egin behar dira horrelako

gertaerak gure kaleetan. Txilen esaterako, lan asko egin da horretan. Izan liteke oroitarri bat, museo bat..."

#### **Barne Kanta**

Astea amaitzeko ekitaldi hunkigarria egin zen pla-

zan, Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazuren bertsoak, olerkiak, dantza garaikidea eta Eñaut Elorrietaren abestiez lagundurik. "Azken hamarkadetan tortura jasandako pertsonak eta torturaz senideren bat galdutako hainbat etorri ziren Zizurkilera. Ekitaldia amaitzeko, eurek inauguratu zuten Barne kanta izeneko eskultura, Kolobika Jauregik torturaren aurka egindako sinboloa", azaldu du Usandizagak. "Nabarmendu nahi dut ekitaldi

guztietan jendeak emandako erantzuna, eta era berean, zizurkildar hainbat lehen aldiz ausartu dela aste honen harira bere tortura testigantza egitera. Arrastoa uste baino sakonagoa den seinale".

Jardunaldi hauekin, eman beharreko aurrerapausu bat eman duela uste du Udalak. "Orain aurrera jarraitu behar dugu, hau bide baten hasiera izan da gertuko biolentziari erreparatzeko orduan".

## **La huella de la tortura**

Del 10 al 16 de febrero se realizaron las jornadas, "Torturaren Egia: Itzaletik Argira"

"La realidad de la tortura siempre ha estado oculta, en el cajón. En la Transición se metió en el cajón y hoy en día sigue totalmente escondido". Esas palabras del forense Paco Etxeberria en Zizurkil ponen encima de la mesa la

necesidad de realizar dichas jornadas. "Queríamos realizar un acto de reconocimiento, reconocer a todas y cada una de las personas que han sido torturadas en Euskal Herria. Y sobre todo, queríamos escuchar sus vivencias", ha explicado la concejala de Derechos Humanos, Eva Usandizaga.

Durante una semana se realizaron dos mesas redondas y se proyectó un documental. "Quiero subrayar la respuesta del público, y sobre todo, la participación de algunos zizurkildarras que se han atrevido a contar las torturas vividas hace décadas, una verdad que han llevado oculta hasta ahora".

# 2014ko aurrekontu

## 2013an baino %10 aurrekontu txikiagoa izango du Udalak

3.045.735 euro, horixe da Zizurkilen 2014ko aurrekontuaren zifra. Ez dira osatzeko aurrekontu errazak izan, zorraren zama eta egin beharreko inbertsioak orekatzearen zailtasunengatik. "Bi oinarri nagusiren gainean eginak daude, herritarrei zuzendutako laguntza eta zerbitzuei eustea, eta herrian hobekuntzak egiten jarraitzea", azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak. Hainbat inbertsio ezin izan dira sartu ordea. "Aspalditik esaten ari garen moduan, zorrrak mugatzen gaitu. Aurten

ere 350.000 euro maileguak ordaintzera bideratuko ditugu. Zorpetze legearen mugan gaude, oso gaitetik hartu genuen Udala eta zor asko kendu dugu (*ikus grafikoa*) baina oraindik inbertsio bat egiteko ezin dugu zorpetu, ez legez, eta ezta arduragatik ere", zehaztu du Nerea Lizarraga ogasun zinegotziak.

### Dagoenari eutsi

"Kultur arloan ekintzei eta herriko elkarteen laguntzei eutsi egin zaie, iruditzen zaigu hori ezinbestekoa dela

herri bizia nahi badugu. Gastu orokorra asko murriztu zen legealdi hasieran eta hori ez igotzea ere helburu dugu. Eta ondoren, ahal den neurrian inbertsioak egin", aipatu du Lizarragak. Luengok zera nabarmendu du, "inbertsio gehiago egitera bideratu beharko genukeen dirua zorra ordaintzera ari gara bideratzen. Zorra bankuekin duguna batetik, eta bestetik, Aldundiarekin 2009an pila-tutako zorra ere ordaintzen amaitu berri dugu".


Futbol zelaiaren berritzea, Zizurkil goiko parkea, eta

Aldundiaren diru laguntza bat baliatuz egingo diren hainbat hobekuntza jasotzen ditu inbertsioen alorrak. "Atxulondoko igogailua eta plazako estalpea momen-

*«Inbertsio gehiago egitera bideratu beharko genukeen dirua zorra ordaintzera ari gara bideratzen»*

## Zorraren bilakaera

Grafiko honetan Udalak bankuekin pila-tutako zorra ageri da. Ez da kontuan hartzen 2009an Aldundiarekin pilatu zen 450.000 euroko zorra, azken 3 urteetan ordaindu behar izan dena.



# ak onartzeak

Inbertsioak	Gastua	Dirulaguntzak
San Mllan eskolako jolasgunea	26.200 € (2013 urtean)	12.000 € Jaurlaritza
Futbol zelai berria, aldagelak eta argiteria	350.000 €	250.000 € <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aldundia 150.000€</li> <li>• Futbol federazioa 100.000€</li> </ul>
Zizurkil Goiko espaloia eta aparkalekua, Tren zubiko panelak eta Muñoa kaleko badenak	68.000 €	68.000 € Aldundiak oso osorik ordaintzen dituen hobekuntzak dira

tuz kanpoan utzi behar izan ditugu. Estalpea, 2015ean sartzen saiatuko gara, eta igogailua, dirulaguntzaren arabera erabakiko dugu". Izan ere, 168.000 euroko kostua aurrikusten da. "Dirulaguntza badago, aurtan bertan sartu genezake, aurrekontu aldaketa bat eginenez, baina bestela ezinezkoa izango da", nabarmendu du Luengok.

#### Mezu baikorra

Etokizunera begira mezu baikorra eman nahi izan dute bi Udal arduradunek. "Legealdi honetan lan gogo-

*«Futbol zelaiaren berrikuntza izango da aurtengo inbertsio nagusia»*

rra egokitu zaigu, baina horri esker, Udala orain askoz bideragarriagoa da duela 3 urte baino. Bide honetatik jarraituz, etorkizun hurbilean proiektu handiagoei ekiteko aukera izango da". 2014ko aurrekontua datozen egunetan egingo den Udalbatzan onartuko da.



Zizurkil goiko haurrek jolas lekua dute berriro.

## El presupuesto de 2014, un 10% menor

3.045.735 euros, esa es la cifra de los presupuestos de 2014, la menor cifra de los últimos años. "Con las herramientas que poseemos, se sustentan en dos bases, mantener los servicios y las ayudas a los ciudadanos y en medida de lo posible, seguir invirtiendo en mejoras

en Zizurkil", explica el alcalde Joxe Mari Luengo. Sin embargo, ha habido que posponer algunas inversiones. "Como ya hemos explicado anteriormente, la deuda nos limita. Este año destinaremos 350.000 euros a pagar dicha deuda. Estamos en el límite legal de endeudamiento.

Cuando entramos al ayuntamiento, la superábamos con creces, y hemos conseguido rebajarlo considerablemente". *Ver gráfico*

#### Inversiones

En el aspecto cultural se mantendrán las actividades y las ayudas a las asociacio-

nes de Zizurkil. En cuanto a inversiones, se contemplan la renovación del campo de fútbol, el parque infantil de Zizurkil goia y diversas mejoras en infraestructuras viarias de la mano de la diputación. El presupuesto se aprobará en los próximos días.

# Teodosioenea, garai

Herriko erdigunearen eraldatze lanen baitan eraitsi berri da etxebizitza

6

Mende bat egin du Teodosioeneak Zizurkilen. Berau eraikitzeko baimen eskaera 1900 urtekoa dela frogatu dute Teodoro Hernandorena kultur taldeko kideek. Argitalpen berezia prestatu dute *Teodosioenea eta Almorzararrak* lemapean. "Eraikina botatzeko asmoa zegoela jakinda, etxearen historia bildu nahi izan dugu, Elbarrenaren ezaugarri bat izan delako" azaldu digute Joxin Azkue eta Julian Arrastoa elkarte-kideek. "Teodosio Almorzak eraiki zuen etxea. Eta bere bi semeek inguruko beste bi etxe eraiki zituzten ondoren. Teodosio Berri (Kaixo) eta dagoeneko ez dagoen Ildefonso Enea. Etxearen historiarekin bat familiarena bildu dugu".

## Ogibidez, herreroa

Teodosioeneari izena ematen dion Teodosio Almorza herreroa zen ofizioz. "Urnietar jatorrikoa, Tolosatik etorri ziren Zizurkilera. Hasieran orain gutxi bota duten Zubimusu berri etxean egon ziren eta ondoren Teodosio eraikitzekeo baimena eskatu zuten. 1905ean agertzen da lehen aldiz Udal agirietan Teodosio herrero gisa. Herrero ofizioa familiaren ikur izan zen, bere bi semeek herrerotegi bana jarri baitzuten gero".

Eraikin hori eraikitzekeo ordea, Teodosio Almorza ez zela



Teodosioenea 60ko hamarkadan.

edonor pentsa liteke. "Ez zen markes bat ere. Guk aurkitutakoaren arabera, langilea izango zan gizona, ekintzaile horietako bat, negozioetarako ausartzen zena", zehaztu digute.

## Apopilo etxea

Teodosioenea apopilo etxea izan da beti. "Negozio ikuspuntutik egina zen, behean taberna izanda, egonaldia eta otorduak emateko aukera zegoen. Familia lehen pisuan bizitzen zen eta bigarren eta hirugarren pisua alokairuan izaten zuten. Teodosio Berri osoa ere alokairuan

izaten zuten. Alokairuan bizitako hainbaten biografia ere jaso dugu".

Teodosioenea egitura aldeetik berezia dela esan daiteke. "Estua izate hori terrenoaren arabera da", zehaztu digute. Planoak ere lortu dituzte Hernandorenakoak. "Etxeak berezia dirudi baina herri askotan daude antzekoak. Zu pentsatzen jartzen bazara herri ugariaren sarreran daude horrelakoak. Villabonan bertan Andoaindik zatozela antzeko bat badago". Teodosio ez da Elbarrenan orain arte iraun duen etxe zaharrena. "Paus bera zaharrago da.

Egia dena da, ordea, Teodosioek mantendu egin duela orain arte hasieratik zuen egitura, Paus erabat aldatu den bitartean".

## Hurrengo belaunaldiak

Teodosio 1932an hil zen, giltzurrunek huts eginda antza. 6 seme alabetatik bi geratu ziren Zizurkilen. "Zaharrena, Joxe, Teodosion geratu zen eta Teodosio Berri etxea egin zuen, aitak herrerotegia zuen txabolaren gainean. Haren anaia Ildefontsok ere etxea egin zuen Asteasura bidean, egun Muñope etxea dagoen lekuan. Seme gazteena,

# baten ikurrari agur

Roman, Donostiara joan zen. Juan Almorza, Romanen aurrekoa berriz fusilatu egin zuten 38 urterekin. Bere historia jaso genuen gerra zibilari buruzko liburuxkan, Tolosan fusilatu zuten". 4 semeen arrastoa atera dute baina Teodosio eta Jexuxa senar emazteek bi alaba ere izan zituzten, Romana eta Joana. "Emakumeak gizar-tean ikusezin ziren orduan ere eta asko kostatzen ari zai-gu euren arrastoa ateratzea. Kanpora ezkondu zirela uste dugu".

Joxe, seme zaharrena Teodosio geratu zen, Joakina Galartzarekin ezkondu. Horrekin bat, Teodosio berri etxea erakitzen hasi zen. "Joxe ordea, 1935ean hil zen, emaztea haurdun zegoela. Joakina ez zen ederki geratu: Etxe berria egiten, herrero-tegia martxan jarri berri, taberna-

ren kargu... Sekulako meritua izan zuen. Hainbat belaunaldirentzat, Elbarrenan erreferente handia izan da Juakina". Kontuan hartu behar da telefonoa ere hainbat urte Teodosioenen soilik zegoela, abisuak pasatzen ere aritzen zen beraz. 1988an hil zen Joakina Galartza, urte askotako hamaika lanen ostean.

## Gaur egunera arte

Joakinak seme bat izan zuen, Joan Joxe. "Sukaldari ogibidez, Maria Cristina hotelean ere ibilia zen. Frankismo garaian atxilotua egon zen greba bat bultzatu zuelakoan. Gazterik hil zen Juan Joxe ere. Bere emaztea eta alaba dira Teodosioenearekin lotutako azken senideak, estankoa daramatenak gaur egun arte".

Senideek emandako informazioa eta Udal artxiboan

*«Apopilo izan ziren hainbaten bizitza ere jaso dugu, Joxe "Andarin" eta Mari-na irakaslearena esaterako»*

eta beste hainbat artxibotan aurkitutakoa izan dira liburuxka hau egiteko iturri nagusiak. "Lan hauek, kultur taldeak ateratako besteak bezala, edonork erabili eta hobetzeko aukera du, osorik deskargatzeko moduan ere jarriko dugu. Zizurkilgo etxe guztietan banatuko da 60 bat orriko liburuxka, argazki ugariarekin hornitua". Senideek emandakoak eta Udalak bilduta dituen argazkiak erabili dira nagusiki.



Joakina Galartza erreferente bat izan zen Zizurkildar askorentzat.

## Teodosioenea, símbolo de una época

Las paredes de Teodosioenea han contemplado durante más de un siglo los cambios acaecidos en Zizurkil. Teodoro Hernandorena kultur taldea, ha recopilado fotos, datos y vivencias en el libro *Teodosioenea eta Almorzatarrak*. "Hemos querido recabar la historia de la casa, un símbolo de Elbarrena", han explicado Julian Arrastoa y Joxin Azkue. La casa fue construida por Teodosio Almorza

y la familia ha seguido vinculada a la casa hasta hoy.

Teodosioenea ha sido desde el principio una casa de huéspedes: "Al tener el bar, había opción a ello. En el libro, también hemos recogido la historia de algunos de sus huéspedes". Teodosio Almorza murió en 1932, un año después que su mujer Jexuxa. Tuvieron 4 hijos y 2 hijas. "El mayor, Joxe, se quedó en la casa familiar y además edi-

ficó Teodosio Berri. Heredó el oficio de herrero de su padre. "No fue el único ya que su hermano Ildefonso también fue herrero". Los otros hermanos abandonaron Zizurkil. Uno de ellos, Juan Almorza, fue fusilado en 1936 en Tolosa, "como recogimos en el libro sobre la guerra civil".

### Joakina Galartza

Joxe, el hijo mayor se casó con Joakina Galar-

tza, zizurkildarra del caserío Iturralde. "Joxe murió en 1935, estando Joakina embarazada de 8 meses. Joakina fue un referente para algunas generaciones en Elbarrena, regentaba el bar, al estar el teléfono en Teodosioenea realizaba los avisos correspondientes...". Más datos, fotos... en la publicación que se repartirá en todas las casas de Zizurkil.

# 2015ean, sortzen duen e arabera ordainduko du h

8

Aitor Sarasua,  
ingurumen  
zinegotzia



Iartza auzoko bizilagunek Udalak egokitutako etxolan utziko dituzte kuboak.

Tolosaldeko mankomunitateak martxan du jada atez atekoa ezarrita dagoen herrietan kubo mugimendua erregistratzeko sistema. Honen bidez, nork berziklatzen duen eta nork ez jakingo du udal bakoitzak. "Dagoeneko datuak jasotzen ari

**«Hondakinak gaika bereizten dituztenek tasa bat izango dute, eta birziklatzen ez dutenek beste bat»**

gara. Datu hauen bidez, tasak klasifikatuko ditugu. Era honetan, hondakinak gaika bereizten dituztenek tasa bat

izango dute, eta birziklatzen ez dutenek beste bat, garestiagoa", azaldu du Aitor Sarasua ingurumen zinegotziak. Honen atzean, fiskalitate justu bat dago, argi-ındarraren edota gas kontsumoaren ordainketaren atzean dagoen bera: "Bakoitzak, ingurugiroan sortzen duen inpaktuaren arabera ordaintzea da justuena. Mankomunitateak zabortegira edo tratamendu plantara eramaten duen errefusa tona bakoitzarengatik diru-kopuru bat ordaintzen du.



# Errefusa kopuruaren herritar bakoitzak

Gero, kopuru hori udalari kobratzen dio, eta azkenik, Udalak nori ordainarazi behar dio hori? Bada, errefusa, kopuru handietan sortzen duenari”, argitu du Sarasuak. Arrazoi honengatik, udalak oraindik atez ateko sistemaren bidez hondakinak gaika bereizten ez dituzten herritarrak zeregin horretan hastera animatu nahi ditu: “Badakigu zenbait herritarrek kuboak etxean izan arren ez direla erabiltzen ari. Oraindik garaiz daude, eta akatsak eginez ikasteko denbora badute”, gehitu du udal ordezkariak.

## 21 eskaera berri

Atez atekoa sei hilabetez frogatu ondoren, herritarrek hondakin bilketa sisteman aldaketak eskatzeko aukera izan dute. Martxoaren 10ean itxi zen epea. Guztira 21 es-

*«Bakoitzak, ingurugiroan sortzen duen inpakuaren arabera ordaintzea da bidezkoena»*

kaera izan dira, eta Sarasuak aurreratu duenez, ia denak onartuko dituzte: “Eskaera gehienak banakako zintzilikarioa eskatzeko izan dira, eta beste batzuk komunitate mailako monolitoak eskatzeko”.

Bestalde, lartza auzoan ere aldaketak egin behar izan dituzte. Auzoa beraren egiturak, eragozpen bat baino gehiago eragiten die biltzaleei. Hala nola: auzora igotzeko dagoen aldapak eta gauez

dagoen argiteria eskasak. Bilketa ahalik eta era erosoenegian egiteko, auzotarrek beste sistema bat adostu du Udalak: “Auzora igotzeko aldaparen hasieran txabola bat eraiki dugu. Hau izango da auzo horrentzat hondakinak uzteko puntu bakarra”. Oraindik bilketa puntu hau ez dago martxan, baina aurrerakusi duenez, auzotarrek laster izango dute hasiera dataren berri.

## Auzo-konposta Ernio Bidean

Elbarrenako zenbait herritarren eskaerari erantzunez, udalak lehenengo auzo-konposta gunea martxan jarriko du Elbarrenan. Zehazki Ernio Bidean, Danena futbol zelaiaren ondoan kokatuko da. Hasiera batean 8 familia hasiko dira konposta-gunea erabiltzen.



## En 2015 los vecinos y vecinas pagarán la tasa de la basura, según el resto que generen

La mancomunidad de Tolo-saldea ha puesto en marcha el sistema para registrar el movimiento de cubos de cada pueblo. De este modo, cada ayuntamiento podrá identificar quien recicla y quien no. “Ya estamos obteniendo los datos, en base a los cuales nos basaremos para clasificar las tasas”,

anuncia Aitor Sarasua concejal de Medio Ambiente. “De esta manera, las personas que reciclen tendrán una tasa, y las que no reciclen otra más cara”. Detrás de esta medida se sitúa la intención de aplicar una filosofía más justa. Y es que, el que más genere más tiene que pagar, tal y como sucede

con la factura de la luz o el gas. “La mancomunidad paga una cantidad de dinero por cada tonelada de resto que lleva a la planta de tratamiento. Después, es el ayuntamiento quien se hace cargo de ese gasto. De este modo, ¿a quién le tiene que cobrar el ayuntamiento? Lo más justo es que le

cobre a quien genere ese resto y no al que recicla”, aclara Sarasua. Por eso, el ayuntamiento quiere animar a los vecinos y vecinas a que comiencen a reciclar mediante los cubos que cada familia posee. “Todavía estamos a tiempo, es normal cometer errores al principio, pero es fácil aprender”, señala.

# “Beharrean zeuden herritarrek elikagaiak jasotzea eskertu dute”

25 bolondres inguru elkartu ziren martxoaren 8an elikagai sortak egiteko

10

Zizurkilek egin du jada elikagai premian dauden herritarren artean lehenengo banaketa. Nerea Lizarraga ongizate zinegotziak balorazio positiboa egin du: “Oso gustura gaude lanerako bolondresak eskatu eta jaso genuen erantzunarekin. Segituan bete ziren lan-txandak”, adierazi du. Gainera, lanean ari zirela, hirugarren txandako bolondresei deitu behar izan ziotela azaldu du, lanean behar baino jende gehiago zegoenez lana uste baino lehenago amaitzen ari zirelako. Baina herritarrek erakutsitako elkartasuna ez ezik, elikagai horiek jaso dituzten zizurkildarren esker onak bete ditu Lizarraga eta Udaleko ongizate zerbitzuko gizarte langileak. “Eman zaiena

ez da gauza handia, baina izugarri eskertu dute”, gaineratu du. Guztira 60 familia izan dira elikagaiak jaso dituztenak. 130 pertsona inguru.

## Europatik Zizurkilera

Zizurkilgo Udala Europako programa batean sartu da. Elikagai bilketa Europa mailan egiten da. Zizurkilgo Gizarte Zerbitzuak, herrian beharrean dauden familien arabera eskaera egiten du, eta eskaera honen arabera elikagai kopurua bidaltzen dute.

Dena oso zehaztua dagoela azpimarratu nahi izan du alkateordeak: “Familiako haur kopurua, familiaro kide-kopurua... Honen arabera elikagai sorta handiagoa edo txikiagoa



Herritar bolondresak elikagai bankuan lanean.

izan du bakoitzak. Gizarte zerbitzuetan emandako zerrendarekin joan behar izan dute elikagai sortaren bila”.

Programa honek urtean hiru elikagai banaketa egiten ditu. Orain egin den banaketa hau, berez, 2013. urteko azken lauhilekoari zegokiona da. “Ez

dakigu zein izan den arrazoia, baina atzeratu egin da. Hortaz, orain, 2014 urteari dagozkion hiru banaketak falta dira”, argitu du zinegotziak. Oraindik ez dakite noiz izango den hurrengo banaketa, baina aldez aurretik jakinaraziko dute Gizarte Zerbitzuen bidez.

## “Los y las zizurkildarras han agradecido la ayuda recibida”

Son palabras de la teniente alcalde Nerea Lizarraga que ha hecho un balance positivo del primer reparto del banco de alimentos en Zizurkil. “Hay que remarcar la respuesta que recibimos por parte de los vecinos y vecinas para trabajar como voluntarios. En pocos días se llenaron los turnos de trabajo”, asegura. Fueron unos 25 zizurkildarras quienes estuvieron haciendo lotes de alimentos du-

rante la mañana del 8 de marzo. Gracias a ese trabajo y a los alimentos que han llegado del banco de alimentos de Europa, 60 familias de Zizurkil han recibido sus correspondientes lotes de productos. “Todo está muy controlado. Según el número de miembros de cada familia o según el número de menores que haya en cada casa, los lotes son más grandes o más pequeños. Además,

cada familia va a recoger su lote con un certificado que le proporcionan en los servicios sociales del Ayuntamiento”, remarca Lizarraga. Este año, todavía se harán otros tres repartos, y como en esta ocasión, se requerirá de la ayuda de voluntarios. Por último, Lizarraga ha adelantado que están valorando la posibilidad de hacer una recolecta de alimentos en Zizurkil.

## Herrian elikagai bilketa

Herritarren elkartasuna eta premian zeudenen esker ona ikusita, Lizarragak aitortu du herri mailako elikagai bilketa bat egitea aztertzen ari direla. “Herriko gune ezberdinetan elikagaiak biltzeko puntuak jarri eta Europatik datorrenarekin elikagai sortak indartzea izan daiteke bide bat”. Baina ezer egiten hasi aurretik, Udalak dituen baliabideak ondo neurtu behar direla adierazi du.

# Martxoa martxan Zizurkilen

Ekitaldi ugari ospatu dira azken asteetan. Argazki hauetan jaso ditugu horietako batzuk.



Antzerki Astearen baitan kale antzerkia egin zen.



Aitziber Ibarbia izan zen omendua 2014ko Txapel egunean.



Herriko gazteek murala pintatu zuten emakumearen nazioarteko egunaren harira



Gazte egunean neska-mutilek herri kiroletan hartu zuten parte.



Gure Esku Dago ekimena Villabona eta Zizurkilgo zubiak alderik alde lotzea lortu zuen.

HERRITARREN TXOKOA

# NEREA BARRIOLA



## “Kantuko irakaslea izatea gustatuko litzaidake”

Kantugintzako Goi Mailako ikasketak bukatuko ditu aurten eta etorkizunari begira jarria dago Zizurkilgo sopranoa

**Hasteko topiko bat: Non-dik datorkizu kantatzeko zaletasuna?**

Villabonan sortu zen Eresargi abesbatzan hasi nintzen. Oso garai ona izan zen. Gustura ibiltzen nintzen kantuan. Eta horrela, egun batean, korotik aparte kantatzen ikasi nahi nuela erabaki nuen.

**Kantua zaletasun izatetik lanbide izatera igarotzeko pausoa, zaila egin zitzaidun?**

Oso zaila, bai. Beste ikasketetan, hiru edo lau urte ikasi eta lan mundura egiten duzu salto. Baina musikarekin ez da hain erraza. Gurasoak ohartarazten zidaten horretaz, baina horrenbeste gustatzen zitzaidan...

**Argi zenuen eta argi duzu beraz...**

Bai. Gustatzen zitzaidana egin dut azkenean. Eta ez naiz damutzen, asko aportatu dit.

**10 urte kantuan ikasten...**

Bai, lehenik sei urtez erdi mailako kantu ikasketak egin nituen Donostiako



Francisko Escuderon. Aurten bukatuko dut goi mailako gradua Iruñean.

**Eta orain ikasketak amaituta, zer?**

Gustatuko litzaidakeena da, lan egiten dudana bitartean irakasle partikularren bat aurkitu eta ikasten jarraitzea.

**Eta etorkizunean?**

Ez dakit. Agian kanpora joan beharko dut. Argi dudana da, kantuko irakaslea izatea gustatuko litzaidakeela.

**Kanpora joan behar izanez gero, herrialde bat baduzu buruan?**

Alemania. Baina kanpora joateak bertigoa ematen dit. Herriak asko tiratzen dit: Familia, lagunak...

**Villabonan kontzertu bat eman berri duzu Ana Iparragire piano jolearekin batera. Zaila da kontzertuak lortzea?**

Tira... Lehen ezkontzetan kantatzeko asko deitzen ziguten, baina orain asko jaitsi da hori. Gradu amaierako kontzertua prestatzen ari garela aprobetxatuta, Villabonako Udalera jo genuen kontzertu hau eskainiz. Baiezkoa eman ziguten segituan, eta gainera, beraiek uzten digute entseguak egiteko aretoa.

**Zaila diot, kantu lirikoak oso publiko espezializatuak duelako...**

Bai, egia da, baina jendea gustura ateratzen da kontzertuetatik. Hain ezberdina da ohikoak diren kontzertu estilotik...

**Herrian kantatzea errazago egiten zaizu edo urduritasun gehiago eragiten dizu?**

Nik uste dut, hain justu ere herrian gaudelako eman digutela bertan kantatzeko aukera. Ni momentu honean bi lekutan nago: Iruñean, tribunal baten aurrean kantatzen dut, azterketa bat be-

zala da, eta horrek tentsioan kantatzea eragiten dizu. Hemen berriz, disfrutatu egiten dut kantatzen. Gainera, urte hauetan ikasi dudana erakusteko aukera da. Ilusio handiarekin bizi izan dut kontzertuaren prestaketa.

**Esaiguzu...**

**Herriko pertsonaia bat**

Pertsonaia aukeratu beharrean kuadrila bat aukeratu dut. Nire anaiaren kuadrila. Herriko saltsa gutietan sartuta daude, goiko gazteekin harremana daukate, eta iruditzen zait, herriaren etorkizuna direla.

**Leku bat**

Atxulondo burdinola.

**Zer dago faltan?**

Kulturaren eta artearen inguruan mugimendu eskasa dago. Azpiegitura ere falta zaigu.

**Eta zer dago soberan?**

Dagoen guztia da beharrezkoa. Ez nituzke inolaz kenduko Danena Kirol Elkartea, Gau Krossa, Blues gaua eta kultura ikastaroak. Herriari bizia ematen diote.

# B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria  
Herritarren Parte Hartze  
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:  
SS-1118-2011

Harremanetarako:  
plazaberri.zizurkil@gmail.com  
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,  
Teodoro Hernandorena 6,  
20.159 Zizurkil.  
Tel. 943-691012  
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,  
20.159 Zizurkil.  
Harrera Orokorra  
Tel. 943-693066  
Kultura, Euskara, Hezkuntza,  
Gazteria y Kirola Saila  
Tel. 943692495  
Fax 943-693674.